



Datuek eta errealitate gordinak digute murrizketen politikek ez gaituztela krisitik aterako, aitzitik, urtetan borrokatu ostean lorturiko eskubideak suntsitu nahi dituzte. Instituzioek gastu soziala murriztea erabaki dute gizarte zerbitzu publikoetarako aurrekontuak urrituz. Osasungintza eta hezkuntzarako aurrekontuak murriztu dituzte eta gizarte sarietara heltzeko betekizunak areagotu, hauen zenbatekoa ere murriztu egin dutelarik. Sari desberdinetako jasotzaileak kriminalizatzen dira, langabezia diren pertsonen euren egoeraren errudun egiten zaie eta gizartearen sektore zabalei osasun, etxebizitza, hezkuntza, elikadura eta abar bezalako funtzezko gizarte eskubideak ukatzen zaizkie. Zerga-bilketaren zama klase popularren bizkarretik ematen da. Zerga-politikak errentatza eta kapitala faboratzen ditu, zerga-iruzurra baimentzen delarik.

Hainbat eragilek urteak daramatzagu murrizketa hauek salatzen, baina eraso zabala eta estrukturala da; hau dela eta, kolektibo, plataforma eta sindikatu desberdinek indarrak metatzearen beharra ikusi dugu erabateko erantzun bateratua emateko. Hau dela bide honakoa aldarrikatzen dugu:

- Eragile sozial eta sindikalen benetako partehartzerako eskubidea politika publikoak zehazteko eta hauek ebaluatzeko.
- Gizarte sari desberdinei ezarri dizkieten lege eta aurrekontu-murrizketak bertan behera uztea.
- Gastu sozialerako aurrekontu-saila gehitzea Europako gastu publikoarekin bat egiteko.
- Zerbitzu sozial publikoa, unibertsalak eta aurrekontu publikoen kargu, mendekotasunik duen pertsona ororen babes bermatuz.
- Zerga-politika justua eta mailakakoa, azken hamarkadetan ezarri diren erreformak atzera bota ditzan eta ondasunaren banaketa bidezkoagoa posible egingo duena. Zerga-iruzurraren aurkako benetako borroka.
- Kalitatezko enplegua sortzea, zerbitzu publikoen defentsa eta inbertsio publikoa biztanleriaren beharrak betetzeko.
- Aukera-berdintasuna. Bizitza laborala eta pertsonala bategiteko politika eragingarriak. Lan produktibo eta erreproduktiboaren banaketa.
- Lan harreman eta babes sozialerako euskal esparrua, eskuduntza arauemailearekin.

Biztanleriari dei egiten diogu politika hauek bertan behera utz ditzaten eta eskubide sozial eta laboralen alde mobiliza dadin.

OTSAILAK 4, LARUNBATA, 18:00AN, MANIFESTALDIA BILBON, JESUSEN BIHOTZAREN PLAZATIK.

Eragile sozialak: Argilan; Gizarte Sarien Aldeko Asanblada Irekia; "Ikusiezinezkoen Asanblada"; Bizkaiko Langabetuen Asanblada; Berri-Otxoak (Barakaldo); Danok Lan (Galdakao); Euskadiko Gazte Kontseilua; Elkartzen; Munduko Emakumeak; Besarkaden Etxea, SOS Arrazakeria - SOS Racismo, Gipuzkoako erakuntzako Langabetuen Asanblada, Iruñerriko Langabetuen Kolektiboa, Gizarte Eskubideen aldeko Gasteizko Plataforma, Nafarroako aurrekontu partehartzaile eta sozialen herri ekimena.

Sindikatuak: ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, CGT, EHNE, HIRU.